



Nafarroako Gobernuak, 2021eko abenduaren 15ean eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2021eko abenduaren 15ean hartua, Nafarroako Gobernuaren Publizitate Institutuzionalaren 2022rako Plana onartzen duena.

Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiaren eskumena da, besteak beste, kontratazioa zentralizatzea publizitate iragarkiak eta edozein euskarritako bestelako promozio jarduerak egiteko (irailaren 13ko 57/2010 Foru Dekretuaren 4. artikulua).

Egokitzat jo da, kudeaketa publikoan gardentasuna bermatzeko, aurrerapen nahikoarekin jakinaraztea Nafarroako Gobernuaren 2022. urteko plangintza instituzionala. Horretarako, publizitatea emanen zaie publizitate kanpaina nagusiei, hots, 50.000 euroko inbertsioa edo altuagoa aurreikusita dutenei. Herritarrentzat baliagarria da, horren bidez baitakite publizitatera bideratutako baliabide ekonomikoak zein gai eta helburutan erabiltzea planifikatzen den, benetan egindako zerbitzu publikoa ebaluatu ahal izateko; eta, gainera, publizitate merkatuari aukera ematen dio Foru Administrazioak sor ditzakeen negozio aukerak ezagutzeko, hori baita gure erkidegoko publizitate eragile garrantzitsuenetako bat.

Erabaki honetan aurreikusitako plangintzak Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusitik finantzatuko diren publizitate ekintzak aurreikusten ditu, horien egutegia ezarri ahala. Halaber, bertan sartzen dira beste departamentu batzuek egindakoak ere, horien kopuruak aipatu Zuzendaritza Nagusiaren esku utzita, kasuan kasuko kontratuak egin ahal izateko.

Publizitatea kudeatzeaz Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua arduratzen denez, zeharka, baina Foru Administrazioa osatzen duten departamentu eta erakunde autonomoen komunikazio ekintzak islatzen dituzenez, beharrezkoa da Nafarroako Gobernua izatea proposatutako plangintza onartuko duena (txosten honekin batera erantsi da).

Publizitatea kudeatzeko, lehentasunak ezartzen dira, baliabideak mugatuak direlako; jarduerak planifikatzen dira; emaitzak ebaluatzen dira; eta kudeaketa gardena da. Izan ere, Nafarroako Gobernuaren publizitatea kontratatzekeo gastuen kontu zehatza ematen da sei hilean behin, Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, open data formatuan.

Publizitate instituzionala kontratatzeko, Nafarroako Gobernuko eledun den aldetik Toki Administrazioako kontseilariaren 1/2003 Foru Aginduari jarraitu behar zaio. Foru agindu horrek publizitate instituzionalaren inbertsioa arautzen du, eta audientzia ezartzen du komunikabideetan publizitatea banatzeko oinarritzko irizpide gisa.

2022rako publizitate plangintzak 1.008.000 euroko inbertsioa aurreikusten du: horietatik 565.000 euro Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak finantzatzeko ditu; eta 443.000 euro kanpainak sustatzen dituzten unitateen aurrekontuen kargura ordainduko dira.

Zehatzago, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak 2022rako indarreko aurrekontuko bi partida hauen korrelatiboak diren partidak edukitzea aurreikusten du: 060001 06120 2262 921500 partida, "Publizitate instituzionala" izenekoa, eta 060001 06120 2262 921503 partida, "Gizarte sareetako publizitatea" izenekoa, 550.000 eta 15.000 eurotan, hurrenez hurren, betiere kreditu nahikoa eta egokia badago.

Gainera, publizitate ekimenak sustatzen dituzten departamentuek beren partidetatik ordainduko dituzte sektore kanpainak, Nafarroako herritarren artean interes orokorreko gaiei, erabilera publikoko zerbitzuei eta Foru Administrazioak martxan jarritako ekimenei buruzko informazioa eman eta sentsibilizazioa pizteko.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak proposatuta,

ERABAKITZEN DU:

1. Nafarroako Gobernuaren Publizitate Instituzionalaren 2022rako Plana onartzea, erabaki honekin batera erantsi den agiriaren arabera.

2. Erabaki hau helaraztea Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusiari, Nafarroako Gobernuko departamendu guztietako idazkaritza tekniko nagusiei, Kontu-hartzailatza Nagusiari eta Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Kontu-hartzailatza Eskuordetuari.

Iruñean, bi mila eta hogeita bateko abenduaren hamabostean Honen berri ematen dizut, jakin dezazun eta behar diren ondorioak izan ditzan. Iruñean, 2021eko abenduaren 20an. GOBERNUAREN IDAZKARITZAKO ETA ARAUGINTZAKO ZERBITZUKO ZUZENDARIA, María Belén López Carballo.